



Yohn Jauregia (Bilbao)

Yohn Jauregia, Burtsa Eraikina izenez ere ezaguna, hiriko eraikin erantsia da, Bilboko Alde Zaharreko hiru kaletara begira dagoena. Zenbait urte erabili egon ondoren eta beharrezko erreformak eginda, kultur etxe giza berrirabili da.

Jauregiaren eta beraren izenak eztabaidarako bide izaten dira. Egon dauden teoria ezberdinak alde batera utzita, eraikinaren formak eurak dira orientagarri zaizkigunak, eta hauek adierazten dute Burtsa barroko estiloko eraikin nabarmena dela, bi lengoaia ezberdin igartzen zaizkiona: goiko solairuetako neurritsua, eta portadan eta hormakonkan ageri dena, barroko jatorreko apaindua. Dinteldun portada, eraberriturik dagoen baketo mistilineoz inguratua, ezezaguna da Bizkaiko arkitektura zibilean, eta XVIII. mendeko bigarren eta hirugarren hamarkadetan klasifikatu ohi da gainerako zehaztapenik gabe, eraikinari oraindik ez baitzaio egilea aurkitu.

Eraikina

John Jauregiaren kanpoaldea nabarmena da bere nobleziagatik, are eta nabarmenagoa dela zaharberritua izan ondoren. Pilota kaleko fatxada, Santa Mariakoari begira dagoena, hiruetarik garrantzitsuena da. Fatxada horren proiektugileak oso kontutan izan zuen bertako hiri-taxuketa eta behar bezala orientatu nahi izan zuen portada eta oso alderatuta jarri zuen. Gainera, aberastu egin zuen ardatz osoa, enfasia eman ziola gainean hormakonka eta idi-begi bat eginez. Alderdi hori baloratu beharrekoa dugu, zeren sarrerako ardatza mugitzea baldintzagarria izan baitzen beheko solairuaren barne banaketarako.

Gagozkion sarrera nagusia da, dintelduna dela eta moldura bozelatu mistilineoz inguratuta dagoela, garaiko arkitektura kultuan egiten zen bezala. Aberastasun hori eta hormakonkarena -arkudun nitxo bat, fruitu txirikordez apaindutako pilastren artean, landare elementuz eta umeez eurrez apaindutako xafla ebaki baten gainean, guztia erliebe handikoa- kontrastagarri gertatzen dira balkoien urriarekin. Goiko solairu bakoitzean -zaharberritzea egiterakoan beste

bat gaineratu zen- hiru balkoi dinteldun dira, harrizko mentsuloi zuzenen gainean, madari formako korapilo bereizgarridun burdina landuzko karelak dituztenak.

Beste sarrera, Dorreko kaleari begira dagoena, Barrenkale-Barrenaren aurrean, askoz ere urriagoa da, baina dintelduna, berebat, eta oso zabala, ia atetzar bat, pilastra artean eta gainean balkoia duela. Hain noblea, ezta antzik ere, ez den fatxada batean markoztaten da; hala ere, fatxada honetan, itsasadarrera lerro zuzenean baitago, ageri da oso alderatuta armarrria, apala, lau plafoi dituela leinu zaharreko lau familia bizkaitarren armetarako.

Barrualdea

Eraikina noblea da bere kokalekuagatik (kale-gurutzea), tamainagatik (monumentala, hiru solairutan), eraikuntza materialengatik (harlandua) eta osagarriengatik (moldurak, burdinkiak). Baina berezia da batez ere bere espazioen antolaketagatik; izan ere, barruko patioa du, eta alde hori oso urria da Bizkaiko hiritar egoitzazko arkitekturan, gehienetan nahiago baita era metatua.

Patioa, gainera, triangeluarra da; forma hori gertarazten dio branka erako oinplano trapezial arraroak, bere hormarteak espazio haren inguruan banatzen dituenak. Solairuak eraberriturik daude erabilera berrietarako baliagarri izan daitezzen; ez dira moldatu, ordea, solairu arteko komunikaziora; komunikazio hori zirkulu-laurdeneko harrizko maila altu eta zabal batean hasten den harrizko eskailera baten bitartez egiten da, elementu nabarmena gertatzen dela. Solairuei dagozkien eskailburuetan, balkoi gisako begiratoki biribil batzuk, ia pulpituak, atartera irteten dira, eta berdin geletan.

Laburbiltzeko, Burtsa eraikinak balorazio altua merezi du, egoitzazko elementu garrantzitsu delako, ageri duen berezitasun tipologiko metatu gabeagatik, eta bere sarreraren forma arrotzagatik.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Yohn Jauregia

Bilbao. (Pilota kalea. Alde Zaharra).

Bisituen ordutegia:

Asteleheneretik ostiralera:

9:00etatik 21:30etara

Zapatuetan: 9:00etatik 14:00etara

Igandeetan: itxita.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- San Anton Eliza. (Erribera, 24).
- Erriberako Merkatua.
- Arana Jauregia. (Belostikale, 1).
- Santiago Eliza. (Santiago plaza).